



08/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025KO IRAILAREN 12AN EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURARENAKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Jon Burgaña Agoues

EZ BERTARATUTAKOAK:

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025ko irailaren 12an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ez ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakartzapean, eta Jon Burgaña Agoues aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak azaldu die bertaratukoei aste honetan Alkartasuna taberna – Jatetxearen zerbitzuaren esleipenarekin arazo bat egon dela. Proposamen bakarra aurkeztu dela baina ez dela behar bezala erregistratua izan jakinarazi du. Egoera horren aurrean Idazkari Kontu-hartzaileak aurkeztu duen txostena aintzat izanda eta egoeraren larritasuna kontutan hartuta, gai honen inguruko puntu berri bat udalbatza honetan tratatzeko eskaera egin du. Udalbatzak aho batez onartu du Alkatearen eskaera. Alkateak bertaratukoei eskerrak eman ondoren, bilerari hasiera emanez Alkateak saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

EBAZPENAK

- 1.- **2025KO MARTXOAREN 25EKO, MAIATZAREN 27KO ETA UZTAILAREN 29KO BILKUREI DAGOKION AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:



EBAZPENA

LEHENENGOA. 2025ko martxoaren 25eko, maiatzaren 27ko eta uztailaren 29ko bilkurei dagokion aktak onartzea.

2.- 2025KAPI0002 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN BAITAN, ANOETAKO LASARBE EREMUKO ARNASGUNEA EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau onartu erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Anoetako a-14 Lasarbe sektoreko lu3 eremurako “ANOETAKO LASARBE EREMUKO ARNASGUNEA” izeneko exekuzio proiektu berritua gauzatzeko obra-kontratua (2025KAPI0002) K1 EKOPAISAIA, S.L. (B75113449) enpresari esleitzea. Kontratuaren prezioa 299.522 €koa izango da (gehi 62.899,62 € BEZ), 6 hilabeteko bermea ezartzen da eta kontratua burutzeko epea 3 hilabetekoa izango da, beti ere, Baldintza Administratibo Partikularren Orriak eta Baldintza Teknikoen Orriak jarraiki eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe.

BIGARRENA. 362.421,62 €ko gastua xedatzea.

HIRUGARRENA. Esleipen hau gauzatzeko, jakinarazpenean adierazitako epean eta formalizatu aurretik, lehiatzaileak agintzen dizkioten jardunak gauzatu beharko ditu. Halakorik gabe esleipen hau ez da indarrean egongo eta ezingo dute bere aldeko formalizaziorik gauzatu.

LAUGARRENA. Ebazpen hau Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

3.- ANOETAKO UDALAREN BARRUALDEA ERABERRITZEKO PROIEKTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak adierazi du proiektu honen onarpena Alkatearen dekretu bidez egin behar dela proiektuaren aurrekontuaren zenbatekoagatik. Hala ere, Udalbatzari proiektuaren berri ematea egoki ikusi zuelako gai zerrendan sartzea erabaki zuela. Behin proiektuaren berri eman ondoren alkate dekretu bidez onartuko dela adierazi du.



EAJ taldeko zinegotziak, Nuria Carbonell Mirandak andreak, adierazi du ea proiektu hau nola kudeatuko den Udal langileekin, alegia, ea langileek nola hartzen dituzten proposatutako aldaketak.

Alkateak adierazi du gaia delikatua dela eta oreka bilatu behar dela; ez dela Udal gobernuaren intereseko langileen egoera okertzea eta ahalegin guztia egingo dela Udal langileen baldintzak aintzat hartu eta atera daitezkeen kezkak konpontzeko.

Aurrekoak adierazi ondoren, Anoetako udalaren barrualdea eraberritzeko proiektu proposamena Udaltzari berri emanda geratu da.

4.- ANOETAKO AISIALDIKO UDAL-HERRI BARATZEEN PROGRAMARAKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN PROIEKTUA ONARTZEA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du 2024an ordenantza berria onartu zela eta asmoa zela lehen bai lehen abian jartzea programa baina arazo burokratikoak sortu dira urtean zehar. Oraingoan, eta proiektua onartzeko, emakidarako pleguak egin dira.

Idazkariak argitu nahi izan du onartzera doan proiektua ordenantzaren 12. artikuluan agertzen diren agiriekin osatzen dutela eta artikulua horren konplimenduan onartzen dela.

Aurrekoak entzun eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, Udaltzariak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako aisialdiko Udal-herri baratzeen programarako administrazio-emakidaren proiektua.

5.- ANOETAKO ALKARTASUNA TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZU EMAKIDA BIDEZKO ESLEIPEN PROZEDURARI BERRIRO HASIERA EMATEA.

Alkateak hartu du hitza azalduz jaso den proposamen bakarra ez dela behar bezala erregistratua izan. Horren aurrean idazkari kontu-hartzaileak eginiko txostenaren edukia Udaltzariak kideen eskura jarri ondoren, aipatutako txosten honetan zehazten den ONDORIOA atala irakurri du. Idazkariak ere txostenaren azalpen orokor bat egin du.

Aurrekoak entzun eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, Udaltzariak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:



EBAZPENA

LEHENENGOA.- Esleitzeke uztea Erretiratuen Alkartasuna Taberna – Jatetxearen ustiapena, 2025KAPI0004 kontratazio-espeditentea, eskaintzarik aurkeztu ez delako, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Euskadiko kontratazio elektronikoko plataforman eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, SPKLren 151.1 eta 63.3 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

HIRUGARRENA.- Onartzea Anoetako Alkartasuna taberna-jatetxearen zerbitzu emakida bidezko esleipen prozedurari hasiera ematea eta lizitazioa arautuko duten berariazko klausula administratiboen agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Espedientea lehenbailehen izapidetu behar dela deklaratzeko, arrazoituta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, taberna-jatetxe zerbitzua ematea ziurtatzeko premia atzeraezina dela eta. Horrela, prozedura irekian aurreikusitako epeak legez murriztuko dira.

BOSGARRENA.- Erabaki hau, pleguak eta espedientea osatzen duten agiri guztiak Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratzea.

I. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

6.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2025eko uztailaren 16tik irailaren 4a bitarte,(380 zkitik 444 zkira) biak barne, emandako ebazpenen berri eman du eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

7.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Ez da ekarpenik izan puntu honetan.



MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

GALDE-ERREGUAK

8.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ taldeko zinegotziak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta galdetu du ea nola dagoen hutsik dauden Udal lanpostuen gaia.

Alkateak erantzun du albiste onak eta txarrak daudela gai honen inguruan. Batetik, kontabilitateko administraria astelehenean bertan (irailak 15) hastekoa dela. Gazteria eta Kirol Teknikariaren programa bidezko kontratazioa Lanbiden publikatu dela eta epe motzean sail hori betetzea aurreikusten dela.

Udal aparejadorearen inguruan egoerak berdin jarraitzen duela, Anoetako Udaleko postuan egonkortu behar zuen pertsonak Tolosako Udalean probaldia egin behar duela abendura arte eta bitartean ez duela Anoetako Udalak inor izango. Zerrenda ezberdinetatik saiatu dela baina ez dagoela inor postu hori betetzeko prest adierazi du.

Hutsik dauden beste postuak betetzeko martxan jarri beharreko prozesuak hasteko ezintasunak daudela adierazi du. Momentu honetan Udalak duen egoeratik ez du ahalmen eta gaitasunik prozesu horiek garatzeko. Alkateak adierazi du momentu honetan Udal gobernuak ez duela baztertzen kanpo kontratazio bidez prozesu hauek abiatu eta garatzeko beharrezko zerbitzua jasotzea.

Ondoren berriro Nuria Carbonell Miranda zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du otsaila edo martxoan erregistratu zutela Tolosaldeko Hiltegiaren inguruko informazioaren eskaera.

Alkateak hartu du hitza esanez Tolosaldeko Hiltegiaren arazoa duela urte askotik datorren kontua dela eta informazio osoa eskatu zuela mankomunitatean. Oraindik ez dela informaziorik jaso eta eduki bezain pronto beraien eskura jarriko dela. Adierazi du ere urteen poderioz gaiztotzen joan den gaia dela momentu honetan Alkateak ez duela informazio osaturik gaiaren inguruan.

Eta aztertzeke gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:21etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

JON BURGAÑA
AGOUES -
34096516M

Digitalki sinatuta
norenagandik: JON
BURGAÑA AGOUES -
34096516M
Data: 2025.09.25 08:33:10
+02'00'

Jon Burgaña Agoues

1945

1946